

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3009

282/2023 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESIan izendapen askez Pazientearen Segurtasuneko Gainbegirale lanpostu bat betetzeko deialdia egiten den.

Uribeko ESIko Urdulizko Ospitaleko Pazientearen Segurtasuneko Gainbegiralea lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-legepeko kontratuduna) eta B1 lanbide-taldeko lanpostua jabetzan edukitzea.

b) Erizaintzako unibertsitate-gradua edo unibertsitate-diploma izatea, B1 lanbide-taldekoa izanik.

c) 4 urteko esperientzia profesionala izatea, gutxienez, B1 lanbide-taldean, Pazientearen Segurtasuneko erreferente bezala.

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Esperientzia eta/edo prestakuntza izatea Erizaintzako Unitateen antolaketan eta kudeaketan.

– Esperientzia eta/edo prestakuntza izatea Pazientearen Segurtasunean eta osasun-asistentziarekin erlacionatutako infekzioetan (OAEI), baita kalitate-ereduetan, prozesuetan, etengabeko hobekuntzan, segurtasun klinikoan eta abarretan ere bai.

– Esperientzia eta/edo prestakuntza izatea lantaldeak kudeatzeko eta koordinatzeko tresnetan.

– Ezagutza izatea informazio asistentzialeko sistemetan eta erizaintzako eta pazientearen segurtasuneko aplikazio informatikoetan.

– Pazientearen Segurtasuna eta Asistentziaren Kalitatea Masterra izatea.

– Erizaintza arloan Osakidetzan ikastaroak eman izana.

2023ko ekainaren 23a, ostirala

– Pazientearen Segurtasunarekin edo haren edozein lan-lerroekin lotutako Ikerketa-proiektuetan parte hartzea eta/edo Biltzarretan, Aldizkari Zientifikoetan argitaratzea.

– Ofimatikako ezagutzak: Word, Excel, Access, Power Point.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (helbidea: Alfredo Espinosa Ospitalea, Goieta 32, Urduliz). Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Uribeko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (helbidea: Alfredo Espinosa Ospitalea, Goieta 32, Urduliz), beren datu pertsonal guztiak eta Curriculum Vitae dokumentuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

– Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.

– Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

– Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiari horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiari horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiak betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

6.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetza Uribeko ESIko zuzendari-gerentearen Ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2023ko ekainaren 12a.

Uribeko ESIko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY.